



GAZTAREN VII BILTZARRA

ORDIZIA - 2022/10/07



IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIA
COFRADÍA DEL QUESO IDIAZABAL
ORDIZIA





SARRERA

Aurreko edizioetan bezala, Ordiziako Gaztaren VII. Biltzarrerako VI. edizioaren formatu bera mantentzea erabaki du Kofradiak. Hau da, ekitaldiaren iraupena goiz bakarrekoa izango da. Aurrekoetan bezala, biltzarra UPV/EHUreren Udako Ikastaroen parte da, erakunde honek gizarte-sektore zabalean duen irismena baliatu eta gure herriko gastronomian, kontserbazioan, biodibertsitatearen hobekuntzan eta ekonomian hain garrantzitsua den artzaintzaren jarduera ezagutzera emateko.




BILTZARRAREN XEDEA

Biltzarra urriaren 7an egingo da, ostiralean, eta Idiazabal Gaztari lotutako sektorearen balorizazioa egituratuko du, jardueraren alderdi gehienak jasotzen dituzten bi euskarri sozioekonomikotan oinarrituta, eta ekitaldia lau saiotan banatuko da.

Ibarretako gaztandegietan egindako gaztagintzari dagokionez, artzainen irudimenean zerumuga berriak irekitzea da helburua, haien egonezina sustatzen saiatuz, euren errendimendua hobetze aldera.

Mendiko gaztarekin lotuta, sektorea garatzen den eremu geografiko jakin batzuetan bizirauteari lotutakalderdiak landuko dira, zerikusia duten eragileen arteko topaketa ahalbidetzeko, lehen urrats gisa gaiak mahai gainean jartzeko, ondoren, inplikaturako eragileek konponbiderako bide posibleak azter ditzaten. Sektorearen berezitasuna babestea da helburua, ibarretako gaztaren kalitate bereko gaztaz gozatzeko aukera ematen baitigu. Biek ala biek, mendiko nahiz ibarretako gaztek, jarduera ekonomiko eta paisajistiko bat mantentzen dute, eta, aldi berean, gure biodibertsitate gero eta mehatxatuagoaren euskarri dira.



ORDIZIAKO GAZTAREN VII BILTZARRA

IDIAZABAL GAZTEAREN ORDIZIAKO KOFRADIAK antolatuta, Ordiziako Gaztaren VII. Biltzarra urriaren 7ko goizean zehar ospatuko da, Barrena Jauregiko Ekitaldi Aretoan. Ordizia, jarraian zehazten den programaren arabera garatuko dena:

PROGRAMA

9:00

Biltzarraren irekiera agintarien eskutik.

MENDIKO GAZTA/TRASHUMANTZIA


9:15ETIK 10:00ETARA

Nel Cañedo jaunaren hitz-hartzea. Artzaina ogibidez eta Historian lizentziaduna Oviedoko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean. Behi, ardi eta ahuntz talde bat du, egunero Europako Mendietan (Picos de Europa) ibiltzen dena, eta horien esnearekin egiten du salgai jartzen duen eta mantenu gisa balio dion gazta. Lanbide horretara bultzatu du natura-ingurunearekin zerikusia duen guztiari dion maitasunak, eta gaztea izan arren, dagoeneko bizi izan dituen etapa ezberdinen jarraipenak. Berak dioen bezala, baita asturiar gaita kontzertista gisa ere bizi izandako aldiak.

HITZALDIAREN IZENBURUA: Artzaintza Europako Mendietan.

HITZALDIAREN LABURPENA: Bere lanbidearen garapenean aurkitzen dituen egoera desberdinak azalduko dizkigu, bai ingurunearekin lotutakoak, baina baita jendartearen zati handi batek agertzen duen ulertezintasunak eraginkakoak ere, zeinak uste duen Natura ezagutzen duela Interneten ugariak diren hainbat idazkien bidez, non eta gehienetan inolako oinarri zientifikorik ez duten iritziak izan ohi diren, baina askotan eremu hartako Institutuzioei ere eragiten die, lanbiderako eta oreka naturalerako batere onuragarriak ez diren erabakiak hartzerakoan.





ARTZAIN GAZTA


10:00ETATIK 10:45ERA

Luis Javier Rodriguez Barrón jaunaren hitz-ghartzea. Kimika Zientzietako doktorea eta Elikagaien Teknologiako katedraduna da UPV/EHU. Lactiker – Animalien Jatorriko Elikagaien Kalitatea eta Segurtasuna Taldeko ikertzaile nagusia da, eta gaur egun 10 doktorek osatzen dute. Lactiker euskal unibertsitate-sistemaren ikerketa-talde sendoa da esnekien arloan 2010. urteaz geroztik, bereziki ardi-esnari eta Idiazabal gaztari dagokienez, eta esparru horretan harreman estua du ekoizleekin, elkarrekin eta kontrol erakundeekin. Lan-ildo nagusietako bat gaztaren ekoizpen-baldintzak hobetzea da, prozesuaren fase guztietan, lehengaletatik (esne gordina) kontsumorako prest dagoen azken produktura (gazta heldua) arte. Luis Javier R Barron doktoreak 25 ikerketa-proiektu baino gehiagotan parte hartu du, eta horietako hamabost inguru zuzendu ditu, gehienbat esnearen eta gaztaren kalitatearekin eta segurtasunarekin lotutakoak. Bere ikerketen emaitzek 100 argitalpen zientifiko baino gehiago ekarri dituzte, eta partaidetza ugari izan dituzte nazio mailako eta nazioarteko jardunaldi eta kongresuetan.

HITZALDIAREN IZENBURUA: Gazta egitea: gaztaren esne gordina ebakitzeko eta berotzeko gomendioak (Idiazabal)

HITZALDIAREN LABURPENA: Hitzaldian, Lactiker taldean garatutako eta Idiazabal Jatorri Deiturako kide diren 10 gaztandegi artisauek parte hartu duten doktorego-tesi baten emaitzak azalduko dira. Ikerketaren helburua gaztaren errendimenduan esnearen mozketaren eta berotzearen baldintzek duten eragina ebaluatzea izan zen, eta lortutako gaztaren eta sortutako esne-gazurra aztertzea. Emaitzek erakutsi zuten posible dela gaztaren errendimendua hobetzea, eta esne-gazurraren osagaien galerak murriztea, gatzatua mozteko eta berriz berotzeko baldintzak egokituz, oso bideragarria egungo tresneriarekin, eta gaztaren kalitateari kalterik egin gabe.





10:45ETATIK 11:15ETARA

Atsedenaldi-hamaiketakoa.


11:15ETIK 12:00ETARA

Elena Galán anderearen hitz-hartzea. Ekonomia Historian doktorea, eta Ingurumen Zientzietan lizentziatua. Doktoratu ondoko ikertzailea Basque Centre for Climate Change-n (BC3). Tesia egin zuen XIX. eta XX. mendeen artean nekazaritzak eta abeltzaintzak Katalunian izan zuten trantsizioa aztertuz. Klima-aldaketaren inpaktuak lantzen aritu da, bai eta esne-abeltzaintza nola egokitu litekeen ere. Berriki, euskal artzain sistemen alderdi ekonomiko, sozial eta instituzionalak aztertzen dabil, Artzain Eskolarekin koprodukzio prozesu bat barne. Denboraldi honetan bere lan akademikoa utzi du Pirinioetan (Behenafarroa) artzain gisa lan egiteko, abeltzaintzaren sektorearen ikuspegi sakon eta konplexu bat lortuz. Lan honi buruzko behin betiko txostena datorren azaroan aurkeztuko du.

HITZALDIAREN IZENBURUA: Gazta belarretan hasten da. Lurraldeak ardiekin kudeatzea.

HITZALDIAREN LABURPENA: Joan den udaberriaren amaieran Behenafarroako Pirinioetara joan zenean, oraindik oso ikuspegi akademikoa zuen mendiko artzaintzari buruz. Bazekien mendiko larreak modu jasangarrian maneiatzeak berekin dakarrela gehiegizko artzaintza saihestea, lurzoru biluziak sortzen dituen, bai eta gutxiegi larratzea ere, sastrakei bide ematen diena (sute-arriskuarekin). Bi horien ondorioak dira berotegi-efektuko gasen emisioak areagotzea. Ez zekien zen ardiak helburu hori lortzeko gidatzea, euren artzaintza patroi naturalaren aurka borrokatzea dela. Eta erabilera jasangarrirako artzaintza gidatua lortzea erronka fisikoaz gain, ardiekin komunikatzeko benetako zientzia ere bada, non bi aldeek, artzainak eta artaldeak, elkarri entzun behar dioten. Bere artzain bizitzak ikertzaile gisa oso garbi zituen zenbait gairen ikuspegi berria eman dio, bere artzain esperientzia bera ikertzailearen esperientziarekin kontraesanean sartzeraino. Artzaintza hurbiletik bizitzean, lehen irudikatu ere egiten ez zuen konplexutasun bat aurkitu du. Horregatik, susmoa du konplexutasun horren beraren ezjakintasunak eragiten duela logika handia duten politika edo gomendio zientifiko batzuek oztupoak aurkitzea bizitza errealean ezarri nahi direnean.





12:00ETATIK 13:45ERA

Mahai ingurua.

Moderatzailea **Eduardo Urarte** jauna. Latxa eta Karrantzako ardien Albaitaria, eta Arabako mendian kokatzen den Arluzeako artzain eta gaztagilea den familia kidea. Eztabaidagaiak:

- 1.- Hitzaldi bakoitzaren ondorengo eskaeren eta galderen kapituluetan landu ez diren edo behar bezain sakon landu ez diren gaiak garatzea.
- 2.- Hurrengo Kongresuan landu beharreko gaien proposamenak, VIII. edizioan, 2023. urtean.

13:45ETAN

Biltzarraren amaiera.

OHARRAK :

1. Aldi bereko euskara-gaztelania itzulpena egongo da.
2. MiSoluzionek sarean emango du Kongresua. Esteka:
<https://quesoidiazabal.org/7congreso>.

